

13. Buletina

urriak 2013

LAN OSASUN BULETINA

AURKIBIDEA:

- 1. PREKARIETATEA: LAN ISTRIPU HILGARRIEN ARRAZOIA.**
- 2. LAN ARRISKUEN PREBENTZIO LEGEAREN 30.5 ARTIKULUAREN ALDAKETA, ENPRESARIAK BERAK PREBENTZIOAREN ARDURA BEREGANATZEARI BURUZKOA ALDAKETAK**
- 3. GIZARTE SEGURANTZAK AMIANTOAREKIN KONTAKTUAN EGONDAKO LANGILE BATI EZINTASUNA ONARTU DIO**
- 4. HEGO EUSKAL HERRIKO LAN-ISTRIPU HILGARRIEN TAULA, 2013KO URRIA**

13. Buletina

urriak 2013

1. PREKARIETATEA: LAN ISTRIPU HILGARRIEN ARRAZOIA.

Administrazioek, lan istripuen kontra egiteko neurriak indartu beharrean, istripu hauen kausa eta eraginen irakurketa partzialak baino ez dituzte egiten. Askotan estatistiketan oinarritzen dira justifikatu ezin dena arrazoitzeko, lan istripuen kopuruan eman den murrizketa azpimarratuz eta istripuen zergaiti nagusia zorigaitza dela nabarmenduz.

Hala ere, istripu jakin baten kausatik haratago (erorketak edo harrapaketak...), lan- ezbeharren benetazko eta egiturazko arrazoiak apropos alde batera uzten dira. Alboratze honek badu bere zergatia: egiturazko arrazoi hauei ekitea, lan istripuen arrazoiak bultzatzen dituztenen kontra egitea da.

Lan prekarietatea, langileok jasaten duten segurtasun gabezia eta lan baldintzen berme eza gisa ulertzen badugu, administrazioei lan baldintzen kontrola eta hobekuntzak suspertzeko jarduerak exigitzeko arrazoiak ez zaizkigu falta.

Lan merkatuaren desarautzeak edo hitzarmenen behin-behinekotasunak, (nahiz eta onartutako erreformekin hitzarmen guztiak behin-behinekotzat ulertzen diren), segurtasun ekonomiko eza ekartzen du, hau da, soldata murrizketak. Eraikuntzaren kasuan, adibidez, langileek soldata duinak jasotzeko legeak ezarritako lanaldi luzeagoak egitera behartuta daude.

Lan-bizitzaren luzapena edo enpresetan egitura eta lan tresnetan mantentze lanetan inbertsiorik ez egitea, egiturazko prekarietate elementuak dira, eta egin beharreko lanak langile ugari bere bizitza arriskatzeko punturaino behartzen ditu.

Tamalez, azken egunetako istripuek egoera horixe dela egiaztatzen dute. Irailean sei lan istripu hilgarri izan genituen. Hildakoen artean, bi langilek ez zuten lan-kontraturik, autonomoak ziren eta zuhaitzak moztzen ari zirela izan zuten istripua. Beste bik, obra publikoetan lan egiten zuten, azpikontrata batean, eta beste langile bat bere lantokitik kanpo zegoen. Obra publikoaren kasuan, istripuak bereziki larritzat jo ditzakegu, kasu hauetan administrazioari baitagokio erantzunkizun zuzena. Jakina da obra publikoen eskaintzetan prezioak asko jaisten direla, eta honek badu bere eragina, batetik lan hitzarmenak aintzat hartzen ez direlako, eta bestetik, segurtasun eta osasun neurriak betetzen ez direlako.

Bai Osalanek eta bai administrazioek ere enpresen eta sektoreen benetako egoera ondo baino hobeto ezagutzen dute. Litekeena da krisia hasi zenetik lan ezbehar kopuruak gutxitu izana, baina azpimarratu beharra dago langileek, istripu asko sortarazten dituzten segurtasun elementuak salatzeke geroz eta arazo gehiago dituztela, lanpostua galtzeko beldur baitira.

Lan ezbeharren kontrako ekintzarik benetan egin nahi baldin bada, langileok lan baldintza duinak izateko eskubidea errespetatu beharra dago, bai soldatei, baita lanaldi eta lan erritmoei dagokienez ere. Azpikontratazio espekulatiboarekin bukatu behar da, eta lan baldintzak gizatiartu behar ditugu. Paperezko prebentzio eta estatistiken analisietatik, lantokietan ekintzetara pasatu behar dugu.

Diagnostikoa argia da, eta lan baldintzak hobetzeko eta kontrolatzeko tresnak dituztenek ekintzak martxan jartzeko balio beharko luke. Helburua langileon segurtasuna eta osasuna bermatzea da. Erreformatik eta murrizketak bultzatzea lan-ezbeharrekin jolastea baino ez da, hemen aipatu den guztiaren kontra egitea.

2. LAN ARRISKUEN PREBENTZIO LEGEAREN 30.5 ARTIKULUAREN ALDAKETA, ENPRESARIAK BERAK PREBENTZIOAREN ARDURA BEREGANATZEARI BURUZKOA.

Lan Osasunaren Atalaren azken aurreko buletinean iragarri genuenez Gobernu espainiarrak **14/2013 Legea** argitaratu du BOEn (233 zk, irailaren 28koa). **Lege horren xedea ekintzaileei eta haien nazioarteko merkatura ateratzeari laguntzea da.** Lege horren bidez Lan Arriskuen Prebentzio Legearen 30.5 artikulua aldatu da. Aurrerantzean enpresariak berak hartu ahal izango du prebentzioaren ardura, baldin eta enpresak 25etik beherako langile baditu, eta lantoki bakar bat badu.

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioarena, aldatu ondoren, honela geratu da:

Bat. 30.5 artikulua aldatu da, eta horren idazketa honela geratu da:

*«5. Hamar langilerainoko enpresetan, enpresariak 1. puntuan adierazitako eginkizunak bereganatu ahal izango ditu, baldin eta bere ohiko jarduera lantokian bertan egiten badu, eta horretarako behar den gaitasuna badu —kontuan izanda zein arriskuren pean dauden langileak eta jardueren nolakotasuna—, beti ere lege honen 6.1.e) artikuluan aipaturiko xedapenetan zehazten diren mugen barruan. **Aukera hori bera aitortzen zaio enpresariari, 25 langilerainoko enpresetan, baldin eta gainerako baldintzak betetzen baditu, eta enpresak lantoki bakar bat badu.»***

Bi. Xedapen gehigarri bat, hamazazpigarrena, erantsi da, hurrengo idazketa hau duela:

«Hamazazpigarren Xedapen Gehigarria.. Aholkularitza teknikoa hogeita bost langilerainoko enpresetarako.

Lege honen 5 artikuluen 5 puntua, eta 7 eta 8 artikuluek betetz, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak eta Lan Segurtasun eta Osasun Institutu Nazionalak, autonomia-erkidegoekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan, berariazko aholkularitza teknikoa, lan-segurtasun eta osasunaren arlokoa, eskainiko diete hogeita bost langilerainoko enpresei.

*Horren arabera, sistema bat taxutu eta abiaraziko da, enpresariari behar duen aholkularitza emateko, eta horrela enpresariak prebentzio-ekimenak bere kabuz antolatu ahal izango ditu, beti ere **prebentzio-eginbeharrak, modu erraztuan baina benetan, beteko direla bermatuz.**»*

ELAren aburuz horrelako enpresetako prebentzioa enpresariaren eskuetan uzteak prebentzio-maila beheratzea ekarriko du praktikan. Are gehiago, oraingoa bezalako egoeran, lan-osasunaren gaineko inbertsioak enpresek murrizten dituztenean, lege-aldaketa horrek bide ematen die murrizketa gehiago egiteko, arlo horren kontura.

3. GIZARTE SEGURANTZAK AMIANTOAREKIN KONTAKTUAN EGONDAKO LANGILE BATI EZINTASUNA ONARTU DIO.

Gipuzkoako Gizarte Segurantzak PAISA enpresan lan egin zuen langile bati Ezintasun Iraunkorra onartu dio amianto zuntzekin lan egiteagatik. Langilea gaur egun erretiratu dago, baina 60. eta 70.hamarkadetan Errenteriako Productos Aislantes S.A., enpresan jardun zuen. Geroago Ecros multinazionalak erosi zuen PAISA.

Enpresan lan egin zuen urte guzti horietan, autoentzako piezak maneiatu zituen, bereziki amiantoa zuten piezak moztu, lijatu eta leundu egiten zituen inolako arnas babes barik, ezta lan mota hauetan askatzen zen hauts guzti hori kanporatzeko tresnarik gabe.

ELAko lan osasun arloak eskatuta, uztailean Osalanek amiantoarekin lan egindako langile erregistroan sartu zuten pertsona hau eta baita ere lan osteko osasunaren zaintzan amiantoaren protokoloa ezartzea lortu zaio.

4. LAN ISTRIPU HILGARRIEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, URTARRILLA - URRIA 2013

HEH	LAN ISTRIPU HILGARRIAK
BIZKAIA	13
GIPUZKOA	10
ARABA	4
NAVARRA	5
TOTAL	32

*Datuak urriaren 30arte